



LichtBus

DIRU-ITURRIAK

Garrantzitsua da jakitea zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden bezeroak eskaintzen diegunaren truke. Bi motatako diru-sarrerak daude: ordainketa bakarreko diru sarrerak eta ordainketa errepikariak.

Lehen proba egitean (Durango-Arrazola, Arrazola-Durango linea) autobusak egiten dituen enpresari (Irizar enpresa) dohain eskainiko genioke gure produktua, oraindik perfektionatu gabe egongo zelako.

Produktu honen prezioa ikertzen egon gara eta prezio ugari daudela ohartu gara, denetariko prezioekin. Guk 20€tik 50€rako bonbillak eskeiniko genituen. Hasieran, probetako hilabeteen, autobus konpainiari dohain eskeiniko genukeen gure produktua, horrela hobetzeko eta perfektionatzeko aukera izango genuke.

Guk Durango-Arrazola/Arrazola-Durango linea aukeratu dugu probak egiteko. Lau motatako bonbillak dauzkagun (20€koak, 30€, 40€ eta 50€takoak), baina, ongien funtzionatzen duena aukeratzea pentsatu dugu. Horretarako, probako linean lau motatako bonbilak ezarriko ditugu. Lehenengo bi ilaretan merkeena jarriko genuke. Hurrengo bi filetan 30€koak, hurrengo bietan 40€koak eta gero, azkenik, 50€koak. Segida hau jarraituko genuke autobuseko ilarak bukatu arte. Horrela bonbilla mota guztiak autobuseko toki desberdinetan ikusiko genituzke.

Hilabete hori bukatzean, autobuseko bezeroei galdeketa egitean, zein den bonbilla mota onena galdetuko genukeen. Bezeroak bonbilak desberdintzeko mota bakoitzari zenbaki bat jarriko geniokeen eta ez prezioa. Horrela bezeroek ez dakite zein den merkeena eta zein garestiena.



LichtBus

Autobusei gehigarri honekin, autobusaren prezioa gehiago izango zen. Orduan, autobusei errentagarriagoa irteteko, konponbide hau pentsatu dugu: autobus

bidaiaren prezioa pixka bat igotzea, 5-10 zentimo gehienez, horrela autobus konpainiek ez luketen galerak izango.

Pixka bat igotzea bakarrik pentsatu dugu, bestela, bezeroak bidaiaren prezioa asko igotzen dela ikustean autobusa erabiltzeari utziko zioten. Horrela, 5-10 zentimoko inflazioa izanda onuragarria izango litzateke bai autobusak egiten dituen enpresarentzat bai bezeroentzat.

Bizkaibus linea publikoa denez, Eusko Jaurlaritzari subentzio bat eskatuko genioke. Batez ere hasieran, probak egitean dohainik eskeniko genukelako. Hasieran Bizkaibus linea publikoan jartzen hasiko ginelako Eusko Jaurlaritzaren zubentzioarekin nahiko edukiko genuke. Gero dirua irabazten hastean, linea pribatuetan jartzen hasiko ginake.

Beste aukera bat, bankuan mailegu eskatzea da, diru asko behar ez dugulako.

Nahiz eta diru sarrerek hasiera batean ez izan oso handiak ez dira hain beharrezkoak izango, zeren hasieran egin beharreko inbertsioa ez da oso altua.



LichtBus

